

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Ezkurtxorekin trenez
Zarimutzeroa /08

AISIALDIA
Arin-arin eta fandango
ikastaroa /09

LEINTZ GATZAGA
Gatzaga eta gatzagarren
gaineko bideoa /10



PARROKIAKO TALDEAK LANEAN

Hasi dute ikasturte berria Andre Mariaren Zeruratze Parrokiako taldeek. Umeek, gazteek eta helduek, guztiek dute tokia Parrokian; parte hartzeko gogoia besterik ez da behar.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 25
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 26
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIAK	
SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ohati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AREANTZA
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Zapatuan 12:00etan. Otoitzaldia.

GALARTZA
Domekan 11:30ean.

OHARRAK

ESKULAN IKASTAROAK
Udaleko Kultura Sailak eskulan ikastaroak jarri ditu abian. Hamarreko taldeak osatu ahala lanean hasiko dira; hortaz, interesatuek lehenbailehen eman behar dute izena kultura etxean. Ordutegia aukeran daukate eta hiru irakasle ibiliko dira erakusten: Mila Akizu, Rosa del Aguila eta Piedad Roman. Ikastaro bakoitza 30 ordukoa da eta izena ematerakoan 20 euro ordaindu behar dira.

DANTZA AFRIKAR IKASTAROA
Burkina Fasoko lagun batek dantza afrikar ikastaroa emango du. Eskolak martitzenetan izango dira, azaroaren 4an hasi eta abenduaren 9ra bitartean, Kurtzebarri eskolan. Izena emateko Azkena tabernara joan behar da urriaren 31 baino lehen.

75EKO KINTOEK AFARIA
75eko kintoek afaria egingo dute azaroaren 8an Taberna Berri jatetxean. Izena azaroaren 6a baino lehen eman behar dute interesatuek Taberna Berri jatetxean.

69KO KINTOEK AFARIA
69ko kintoek afaria egingo dute azaroaren 8an Taberna Berri jatetxean. Izena azaroaren 6a baino lehen eman behar dute interesatuek Taberna Berri jatetxean.

LORAMENDIREN AGENDA

LABRIT
Urriaren 24an, egubakoitzean, Usurbilgo Labrit kantaria izango da udaletxe zaharrean, 22:00etan.


'ELURRETAN LEHOINABARRAREN BILA' DIAPOSITIBA EMANALDIA
Andoni (Ekin fisioterapia) eta Xabier Ormazabal anaiek *Elurretan lehoinabarraren bila* diapositiba emanaldia egingo dute eguean, urriak 30, 19:30ean.

ORAIN DELA 6URTE ARETXABALETAN

Ilargi lantegia bota zuten urri bukaeran, etxeak egiteko

60 urte baino gehiago lanean jardun eta gero, 1997ko urriaren 20an bota zuten Ilargi lantegia, etxebizitzak eraikitzeko bota ere.

Espainiako gerrarekin batera, 1936an sortu zuten Cerrajera Ilargi SL lantegia. 14 langilerekin hasi zen lanean, eta 50eko hamar kadan 110 izatera iritsi zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ekubilkaria"

Ukubilkada. Ikubilkara.
—*Ekubilkaria emon zoztan tripapian.*



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Nerea Zubiete
22an. Zorionak eta urte askotarako! Goienako lankideek.



ARETXABALETA
Jokin Murillo
23an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Maitane Aguado
23an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta anaien partetik.



ARETXABALETA
Rosa del Aguila
25ean. Zorionak eta muxu handi bat, kafe orduko lagun zaharren partetik.



ARETXABALETA
Yolanda San Martin
25ean. Zorionak eta muxu bat, koadrilako guztien partetik.



ARETXABALETA
Leire Zubillaga
26an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Larraitz Berezibar
26an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

FOTOSINTESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak
24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Nola zuzendu andereño...'

Istorio honetako neskatilari ez zaio bere andereño berria gustatzen, burre gutxi egiten duelako, begirada zorrotzak botatzen dituelako eta mantal gris janzten duelako. Bere egunkarian kontaktuko digu arazo hori konpontzeko egingo dituenak eta azkenean nola gauzak konponduko diren.



NOLA ZUZENDU ANDEREÑO GAIZTO BAT

Miren Agur Meabe
Giltza, 2003
47 orrialde

Meabek egunkari formatu honekin kapitulu laburretan egituratu du, irakurketa errazteko. Bide batez haurren pentsaera eta beldurretan sartzea lortzen du, protagonista idazle bihurtuz.

Liburu polita da, 6 urtetik aurrerako irakurleei zuzendua, eta Maria Esplugaren kolorezko ilustrazioekin lagunduta dator.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Ezkutu TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79


Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

ATREBENTZIAEZPADA/ Berdurak garestitu egin dielako oin gutxiau jango diela uste dozu?



SONIA HERRAN
Langillie



TIRSO MARTINEZ
Langillie




SANTI ROMAN
Langillie



ROSA ROSADO
Langillie



PILI MUÑAGORRI
Langillie



IÑAKI URRETA
Langillie

Ez, ez dot uste. Aurten siku-te haundixe egon dala bada-
kit, baiñe horren ondoren
egon dan igoeriaz ez naz
konaturatu. Eurue dala-eta ez naz
askorik fjetan. Nik behintzet
ez dittut ohitturak aldatu.

Ni saltzaillie naz eta ez dot
igerri jentiek ohitturak alda-
tu dittuenik. Hala eta be,
iraillien izugarri garestitu
zient berdurak. Nik 18 urtien
ez dot sekula horrelako ego-
erarik bizi izen.

Askorik ez. Azoketan eta
denda txikixetan igerri dot
preziuek igo egin diela. Ni
preziuetan zertxobait gehi-
xau fjetan ahaleginketan
naz; bestela, ez dot uste alda-
keta haundirik egon danik.

Preziuei ez dutziet kasu
haundirik egiten; hortan,
nik neuk ez dittut berdurak
erosteko ohitturak aldatu.
Biherrezkue da berdurak
jatie. Horregaittik, kosta
ahala kosta erosten dittut.

Ez, ez dot uste. Ez naz asko-
rik fjetan preziuetan; erosi
biher badittut erosi eta kitto!
Sikutari botaten dutzegue
kulpie, baiñe uste dot eurue
sartu zanetik ederto gares-
tittu diela berdurak-eta.

Ez. Nik behintzet iguel eros-
ten dittut berdurak; hori
bai, preziuetan zertxobait
gehixau fjetan naz. Umiend-
dako erosi biherreko ber-
duretan, adibidez, ez dittut
ohitturak aldatu.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK LOKAZARA GALANTA Badakigu Urkuluko urtegia
inguraten duen bidearen jabetza ez dela zapatuetan eta domeketan
oinez ibiltzen direnena. Hala ere, horiek ere badute tarte honetan
txistuak botatzeko aukera. Kontua da azkenaldian pinuak ateratzen
dabilzan kamioiek sekulako lokatzara mordera utzi dutela bidean.
Hala, zapatilekin beharrea katuskekin joan beharra dago. /A.L.

ETABARRUAN...

INDUSTRIA /04

Lantegiak egiteko lurra

Herrian toki gutxi
dugu lantegienda-
ko. Errotetxe os-
tean eraikitze-
ko prozesua jarriko
du abian Udalak.

ERLIJIOA /05

Parrokiako taldeak, lanean

Andre Mariaren
Zeruratzeko Parro-
kiako taldeek da-
goeneko hasi dute
ikasturtea, eta
lanean dabilta.

KIROLAK /06

Arlutz futbito txapelketa

Oraingo zapatuan,
hilak 25, jokatu-
ko dituzte Arlutz
futbito txapelketa-
ko aurreneko
partiduak.

ASTEKODATUA

18

PARTE-HARTZAILE IZAN ZIREN PATXARAN LEHIAKETAN

Gastronomia eta Folklore Jaialdiaren barruan egin zuten Patxaran Lehiaketan 18 lagunek hartu zuten parte. Irabazleak, lehenengo hiru postuetan gelditu zirenak, emakumezkoak izan ziren.

BESTEKEESANA


“

Futboletik kanpo egon arren, Bartzelona eta Athletic-en arteko partidak ikusteak zerbait pizten du nire

barruan. Eta ez bakarrik bi klubetan aritu naizelako, baizik eta alde bietan lagunak ditudalako. Azken finean, klubarekin bai, baina, gehienbat, jendearekin egiten dituzu harremanak, entrenatzailearekin zein jokalariekin. Orain, Athleticeko zuzendari-tzan egonik eta partidak palkotik ikusita, gure taldeak irabaztea nahi dut. Baina beti geratzen da lehengo garaiei buruzko oroitzapenen bat; nik neuk Bartzelonaren elastikoarekin jokatu dut San Mamesen, eta badakit zeinen berezia den norberarentzat maite duen taldearen kontra aritzea. Athleticetik irten eta Bartzelonarekin Bilbon jokatu nuen lehen partida oso zaila egin zitzaidan.

ANDONI ZUBIZARRETA
'Euskonews&Media' /03-10-17

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaratxe



Atzera jauzika

Zalantzan nago, datorren azaroaren 20an, Francoren heriotzaren 28. urteurrena ospatu beharrea, ez ote zaigun Arias Navarro agertuko telebistan haren berpiztea iragarri. Izan ere, ez dira gutxi azken aldiak atzeraka goazela pentsarazten dizkiguten gertae-
rak: komunikabideen itxierak, alderdi politiko eta giza erakunde-
den ilegalizazioak, jazarpen ideologikoa, pentsamendu bakarraren ezarpena, polizi sarekada prebentiboak...

Eta karramarro lasterketa honetan, beste pauso bat ere eman nahi dute "caudillo"aren oinordekoek, berriz ere erlijioa inposatuz gure eskoletan. Hau da, guk hainbat urtetan jasan genuena, gure seme alabei jasan arazi nahi diete orain, heziketa arrazionalago bat izatea hainbeste kosta eta gero.

Normala da norik bere ideien zabalkundea bultzatzea, eta jarraitzaileak bilatzen ahalegin-tzea. Baina hori bakoitzak bere baliabideekin egin beharko luke, eta ez diru publikoa erabiliz. Niri

behintzat ez zait ondo iruditzen eskolak katekesi bihurtzea. Ez da justua ez erlijiorik gabekoentzat, ezta katolizismoa ez den beste erlijio bat dutenentzat ere, erakutsiko den erlijio bakarra katolikoa izango da eta, jakina.

Aukera bezala erlijioen historia ikasi ahal izango ei da.

"Erakutsiko ote dute ateismoaren, eta honen sorreran eta garapenean, erlijioen inposaketek izan duten eragina?"

Erakutsiko ote dute ateismoarena, eta honen sorreran eta garapenean, erlijioen inposaketek izan duten eragina? Aztertu ete dute, noraino bultzatu duen elizak bizi duen krisia, hainbat urtetan erlijio ofizial, bakar eta derri-
gorrezko izateak?.

Eta gainera, Madriletik datorren inposaketa berri baten aurrean gaude. Esaten dutenez, Lakuan aurka omen daude, eta egia esan ez dut ondo ulertzen Jaungoikoa eta Lagi zarraren jarraitzaileen aldetik etorrita (beno, "Lagi berria" be ederto asko betetzen dakitela erakutsi digute). Ikusiko dugu egiazko orduan nola erantzuten duten

Dena den, horrelako inposaketen aurkako antidotorik onena: INDEPENDENTZIA!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Zein ote da?

Euskara daukogu gai aste honetan, asko, gaiñera, txarrak. Andoainen egin zittuzten atxiloketekin bukatu geuen fan zan astie, eta *Euskaldunon Egunkaria* goguen izenda oinguen gutxi harritsu zien del Olmo epailiek egindakuekin. Euskaldunongan sortu zan amorrue hala eta be, haundixe izen zan eta euskaldun ugeri batu zien Donostian zapatuko manifestasiñuen, tartien asko aretxabaletarrak.

Domekan be aretxabaletar bat baiño gehixau joan zien Irunberrira Nafarroa Oinez ospaketako asmuekin, batzuk automobilletan eta beste batzuk autobusien, baiñe ezin. Oinguen egualdixe izen zan errudune. Geure etxetik bada be lagunketako aukerie badaukogu ondiokan eta norberak bere apurtxue jarritte aurrera egingo dau Irunberriko ikastoliek.

Berri danak ez die txarrak, orratio; **Olaia Etxenausiak Luma** denborapasek antolatutako lehiaketan sarixe jaso dau. Zorionak!

Bukaketan noie, baiñe aurretik gogoretu aste bukaeran ordu aldaketie egin biher dogule; hortaz, domekan ordubete gehixau izengo dogu lo egitteko. Bueno, lo edo batek gure dauena; nik neuk ordubete gehixauko parrandie egingo dot. Domekak lo egitteko ez badie, zetako die ba?

INDUSTRIA / Cerrajera Valle Leniz lantegiak beste kokaleku bat izango du lehentxeago edo geroago

Errotetxe baserri osteko lurretan lantegiak eraikitzeke lehen lanak egingo ditu Udalak

MIRARI ALTUBE

Lurra estimatu dugu herrian; bai etxeak bai lantegiak eraikitzeke falta dugu. Gaur egun hiru toki geratzen zaizkie lantegiei kokaleku: Santutxu ermita ostea, Untzilla auzora doan bide-ertza eta Errotetxe baserri ostea. Horretarako plan partziala bideratu beharko du Udalak.

Herriaren itxura asko aldatu da azken urteotan. Etxebizitza ugari egin dituzte, eta hainbat lantegi tokiz aldatu. Baina gaur egun daukan irudia ez du luzerako izango; ez, horixe. Oraindik askoz gehiago aldatu behar digute.

ERROTETXE OSTEAN LANTEGIAK

Lantegiak kokatzeko hiru toki ditugu: Errotetxe baserriaren ostean, Santutxu ermitaren ostean eta Untzilla auzora bidean. Azken horretan, hala ere, ezin dira edozein motatako lantegiak eraiki.

Aretxabaletako sarreran dauden Errotetxe baserri osteko lurretan lantegiak eraiki ahal izateko plan partziala onartu behar du Udalak lehenengo; eta inolako ezusterik ez badago, behintzat, hurrengo osoko bilkuran egingo du. Onarpen horrekin prozesua abian jarriko du, eta dena ondo badoa hilabete batzuk barru industria pabilioia egiten hasiko dira.

CERRAJERA VALLE LENIZ LANTEGIA

Lausitta kalean dagoen Cerrajera Valle Leniz lantegia, bestalde,



Cerrajera Valle Leniz lantegia herritik aterako dute, eta Errotetxe ostean eraikiko duten pabilioian izango du egoitza.

uste guztien arabera tokiz aldatuko dute. Jose Mari Segovia Udaleko Hirigintza teknikariaren esanetan arrazoiak bi dira: "Herria haziz joan den neurrian CVL lantegia herri barruan geratu zaigu. Ez hori bakarrik, lantegia dagoen ka-

lea nahiko estua da eta atzera eta aurrera ibiltzen diren kamioiek -kamioi benetan handiek- arazok izaten dituzte. Horrez gain, kirol etxe inguruan hasi eta Lausittara bitartean etxebizitzak egiteko egitasmoa aspaldikoa da".

Etxebizitzak egiteko, ostera, lehenik eta behin lurzorua horretarako kalifikatu behar dute, eta oraindik egin barik dago. Hala ere, CVL lantegiak, seguru asko, Errotetxe ostean egingo duten pabilioian izango du egoitza.

LABUR

Erabilitako olioia eta hondakin arriskutsuak astelehenean, hilaren 27an, batuko dituzte

Astehenean, urriak 27, Puntu Berde Mugikorra Aretxabaletan izango dugu. Sukaldean erabilitako olioia eta hondakin solido kutsakorrek batzen ditu hara eta hona ibiltzen den automobilak. Hondakin solidoen artean honakoak daude: bateriak, fluo-

reszenteak, toner kartutxoak, erradiografiak, pilak, poltsikoko telefonoak... Horiez gainera, hainbat hondakin likido ere jasoko ditu: disolbatzaileak, margoak, garbigarriak... Azoka egiten den lekuan egongo da automobila, astelehen goizean.

Azken astea gripearri aurrea hartzeko

Gripearen kontrako txertoa jartzeko epea datorren egubakoitzean, urriaren 31n, bukatuko da. Hortaz, 65 urtetik gorakoek eta gaixotasunen bat dutenek astebete dute hura jarri ahal izateko. Osasun etxera deitu besterik ez dute txanda hartzeko.

Damaso Zuazua aita santuaren inguruan

Aretxabaletako Egilleor baserrian jaiotako Damaso Zuazua karmeldar abadea Erroman bizi da azken urteotan. Aita Santuaren gaixotasunaren eta ordezkapenaren inguruko gorabehera asko dakizki, eta telebistan ikusi dugu oraingo astean.

OSKAR
garajea



Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa A-2-4
ARETXABALETA
www.garajeoscar.com

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✿ Liburuak ✿

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

ERLIJIOA / Kurtsoari begira dituzten helburuak finkatuko ditu parrokiak datozen egunotan

Bai elizbarrutiak, bai herriko parrokiak hasi dute kurtsoa

M.A.

Eskoletan irailean hasi zuten ikasturtea, eta Donostiako elizbarrutiak urriaren 11n hasi zuten. Eta elizbarrutiarekin batera, herrietako parrokiak dauden taldeak ere hasita daude lanean. Hain zuzen ere, Aretxabaletako parrokiak hainbat talde dabilta.

Bai Donostiako elizbarrutiak, bai Aretxabaletako parrokiak hasi dute ikasturtea. Hortaz, parrokiaren inguruan antolatuta dauden taldeak hasi dira lanean.

SENIDE ELKARTASUNEAN

Orain dela 15 egun hasi zuten Donostiako elizbarrutiak ikasturtea, eta honako hau da aurtengo leloa: *Senide elkartasunean espirituak eraberriturik*. Aste honetan bertan, martitzenen hasi eta eguenera bitartean, elizbarruti mailako topaketak egin dituzte Donostian. Gipuzkoako parrokiak lan egiten duten lagun ugari hurreratu zen bertara, baita Aretxabaletatik ere, eta fede esperientziaren gaineko jardunaldiak egin dituzte.

KURTSOARI BEGIRAKO HELBURUAK

Aretxabaletako parrokiaren inguruan dauden taldeak lanean ditugu dagoeneko. Aurten, gainera, parroko eta abade laguntzaile berriekin hasi dute ikasturtea: Jesus Ortiz de Urbina eta Pablo Letonarekin.

Pastoral Kontseiluak du parrokiaren jardunaren ardura. Bertan gainerako taldeetako ordezkariak batzen dira, eta beste gauza batzuen artean, kurtsoari begira dituzten helburuak zehaztu beharko dituzte: "Kurtsoari begira helburu batzuk finkatu gura genituzke, eta horretan ahaleginduko gara datozen batzarretan", dio Antziñe Mendia Pastoral Kontseiluko kideak.

PARROKIAREN INGURUKO TALDEAK

Hainbat talde daude Andre Mariaren Zeruratzeko parrokiak: bataioaren prestakuntzaz arduratzen den taldea, katekesi taldea, sendotza taldea, osasun pastora-



ARTXIBOA

Erljioaren inguruan lan egiten duten taldeek parrokiak dute bilgune eta topaleku.

Umeen katekesiari dagokionez, aurtengo kurtsoan 54 familiak eman dute izena

la, liturgia komisioa, helduen taldea eta parrokiaren garbitasunarekin arduratzen den taldea.

Katekesiari dagokionez, 54 familiak eman dute izena. Aretxabaletan, gainera, beste herri batzuetan ez bezala umeen gurasoei ematen diete eskolak, eta gero gurasoek umei erakusten diete etxean. Hortaz, irakasleak gurasoekin hilean behin batzen dira eta umeekin beste behin.

DBHko 4. mailan dauden gazteei dei egin gura die sendotza prestatzen hasteko

Katekesiko bigarren kurtsoan 37 ume dabilta eta hirugarrenean, 41. Hortik gora, asko txikitzen da ume kopurua.

Sendotza edo konfirmazioari dagokionez, berriz, une honetan talde bakarra dago, eta bost gazte batzen dira. Hala, DBHko 4. mailan dauden gazteei dei egin gura diete sendotza prestatzen hasteko. Hilaren 29an, 19:00etan elkartuko dira parrokiak aurrean.

LABUR

'Euskara Udak Kudeaketa' izenburupean topaketa egin zuten martitzenean Otxaloran

Euskara Udak Kudeaketa izenburupean topaketa egin zuten Deba-goieneko alkateek, hainbat zinegotzik eta euskara teknikariek. Martitzenean izan zen, Aozaratzan dagoen Otxalora jauregian.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Saileko zuzendari Xabier Huizi izan zen topaketan. Aretxabaletatik, berriz, Ane Lore Estala eta Amaia Axpe euskara teknikariek gain Arrixu Oliden alkateta eta lau zinegotzi ere egon ziren: Aralar alderdiko Xabier Sarasua, Jose Anjel Antxia eta Felis Beltran de Heredia eta PP alderdiko Silvia Camporro, hain zuzen ere.

Aretxarte merkatariaren elkarteak urteko batzar orokorra egin zuten atzo, eguena

Aretxartek, Aretxabaletako Merkatariaren Elkarteak, batzar orokorra egin zuten atzo. Hainbat gai izan zituzten hizpide: 2002an egindako lanen memoria irakurri zuten eta egiteko geratu direnak gogoratu; jarduera planaren inguruan egin zuten berba eta elkarterako lan egingo duen langile bat hartzea komeni zela eztabaidatu zuten. Zuzendaritza batzordea berriro egin zuten zozketa bidez, eta bukatzeko 2003ko aurrekontua azaldu zuten.

TXUTXU-MUTXUA



Jaki goxoak eta dantza ikusgarriak plazan

Arrakasta handiarekin egin zuten joan den domekan VII. Gastronomia eta Folklore Jaialdia. Ikusleak pozik eta kanpotik etorritako saltzaileak ere, oso pozik. Aratz atzeratuen elkar-terko tabernan zozketa egin zuten eta hona hemen zenbaki sari-tua: 1.732. Zenbaki horren jabea agertuko ez balitz, hona orde-zkoak: 2.278, 1.641 eta 2.382. IX. Patxaran Lehiaketan, bestalde, 18 lagunek hartu zuten parte -10 aretxabaletarrak-, eta Ermuko Irene Zarraoari eman zioten lehenengo saria. /M.A.

Jauregi Okindegia

Otxalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA



IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik
Bizkaia 3. Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

**AMETS
TABERNA**

Iparagirre 4
Tel: 943 79 01 29
ARETXABALETA

FUTBITO TXAPELKETA

Bihar jokatuko dute Arlutz Futbito Txapelketako lehenengo jardunaldia

Aurten bederatzi taldek hartuko dute parte Arlutz tabernak antolatzen duen txapelketan

AMAGOIA LASAGABASTER

Bihar, zapatua, hasiko da Arlutz Futbito Txapelketa. Aurten bederatzi taldek hartuko dute parte, eta gutxienez Gabonak arte iraugo du norgehiagokak. Partidu guztia zapatuetan jokatuko dituzte Arlutz tabernaren osteko kantxan.

Azken zazpi urteotan egin duten moduan, aurten ere Arlutz Futbito Txapelketa antolatu dute Arlutz tabernako arduradunek. Bihar, hilak 25, jokatuko dute aurreneko jardunaldia. Txapelketa liga eran jokatuko dute, eta gutxienez Gabonak arte iraugo du. Tarte horretan, zapaturo jokatuko dituzte norgehiagokak Arlutz tabernaren osteko futbito kantxan.

BEDERATZI TALDE

Arlutzeko txapelketan bederatzi talde hauek hartuko dute parte: Papitxungo, Kemen, Peña Hugo, DDK, TPM, Somos 4, Lusos, Fontasport eta MCM taldeek. Lusos taldean izan ezik, gainerakoetan aretxabaletarrek jokatzen dute. Hala ere, Somos 4 taldean arrasatearrak



Arlutz tabernaren osteko futbito kantxan jokatuko dituzte norgehiagoka guztiak.

ere badaude. Edozelan ere, gehienek ondo ezagutzen dute Arlutz Futbito Txapelketa. Izan ere, urtero talde berak egoten dira; hortaz, lagun giroan jokatzen den txapelketa dela esan digu Salva Rodriguez antolatzaileak. Eta arrazoi beragatik lehia bizia egoten dela gaineratu digu Salvak.

PARTIDUAK ZAPATUETAN

Urtero bezala, aurten ere zapaturo lau partidu jokatuko dituzte; hortaz, talde batek deskantsua izango du aste bakoitzean. Goizean 11:00etan eta 12:00etan jokatuko dituzte partiduak eta arratsaldean, berriz, 15:00etan eta 16:00etan.

UDAko preferente mailako taldeak golak egiteko zailtasunak ditu

A.L.

Preferente mailako futbol taldeak ezin izan zion joan den asteburuan Aloña Mendiri irabazi. Zelaian gogor ibili ziren Igor Gordobilen mutilak, baina ezin izan zuten golik egin. Oraingo jardunaldian Ordizia izango dute aurkari.

Joan den aspaldian UDAko talde nagusiak ez die pozik egoteko arrazoirik ematen jarraitzaileei. Igor Gordobilek liga hasieran esan zuen aurtengoa txapelketa gaitza izango zela. Eta arrazoi zuen. Izan ere, izugarri kostatzen zaie gola egitea

eta aspaldian ez dute partidurik irabazi. Joan den aste bukaeran Aloña Mendiren aurkako norgehiagoka golik barik bukatu zen. Igor Gordobilen mutilak ez ziren gaizki ibili, baina atezaina gainditzeko orduan huts egin zuten.

Oraingo asteburuan, berriz, Ordizia izango dute aurkari. Horiek ere nahiko gaizki dabilta eta beharrezkoak dituzte puntuak.

Bestalde, UDA elkartearen barruan aipamena merezi dute honako talde biak: ohorezko ligan jokatzen dabilzan gazteak eta emakumezkoen ligako neskak. Orain arte, behintzat, lan bikaina egin dute talde bi horiek.

EMAKUMEZKOAK

UDA elkartek Almen ikastolarekin lankidetzan emakumezkoen taldea osatu zuen orain dela urte batzuk. Hasierako urteetan nahiko makal ibili ziren, eta ez zuten partidu askorik irabazi. Edozelan ere, zailtasun guztiak gainditu eta aurten liga polita egiten dabilta. Bost jardunaldi jokatu dituzte orain arte eta bi partidu bakarrik galdu dituzte.

Emakumezkoen taldea 20 neskak osatzen dute. Oraingo ez dute entrenatzaile ofizialik. Aurkitu bitartean, baina, ondo baino hobeto betetzen dute hutsune hori Jabi Marrek eta Jokin Antxiak.

PILOTA

Lau partidu besterik ez da falta Kluben Arteko Pilota Txapelketako lehenengo fasea amaitzeko

Herriko pilotariak Kluben Arteko Pilota Txapelketan buru-belarri dabilta azkenaldian. Lehenengo fasea amaitzeko lau jardunaldi besterik ez zaie falta, eta orain arte nahiko lan polita egin dute pilotari gehienek. Makalen dabiltzanak nagusien lehenengo mailan jokatzen duten Errasti anaiak dira; horiek txapelketa hasi zenetik ez dute partidu bakar bat ere irabazi. Izan ere, hiru hila-beteko geldiduna egin zuten udako oporretan, eta oraindik ez dute behar den moduko sasoi punturik hartu.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Ordizia-UDA

Preferentea.

Zapatua. 16:00. Ordizia.

UDA-Escolapios

Lehen mailako gazteak.

Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Beasain-Aretxabaleta

Gazteak.

Martitzena. 19:00. Beasain.

Intxaurren-Aretxab.

Nagusiak.

Zapatua. 17:00. Intxaurren.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Aloña 0

Preferentea.

UDA 1 Dunboa 0

Gazteak. Ohorezko liga.

Burumendi 2 UDA 0

Lehenengo mailako gazteak.

Intxurre 1 UDA/Almen 0

Lehenengo mailako kadeteak.

Eibartarrak 4 UDA/Almen 4

Bigarren mailako kadeteak.

Elgoibar 2 Almen/UDA 1

Emakumezkoen liga.

Almen/UDA 7 Antzuola 1

Emakumezkoak. Futbol 8.

Urola 0 Añorga 1

Infantilak. Ohorezko liga.

PILOTA

Aretxab. 13 Goierri 22

Bigarren mailako nagusiak.

Aretxab. 22 Bearzana 8

Lehenengo mailako nagusiak.

Aretxab. 22 Altza 14

Bigarren mailako gazteak.

Aretxab. 10 Usurbil 22

Bigarren mailako gazteak.

FOTOKIROLA



Karate txapelketan Kerman hirugarren

Aretxabaleta Karate Taldeko Kerman Colinok lan bikaina egin zuen joan den zapatuan, hilak 18, jokatu zen Gipuzkoako Karate Txapelketan. Kerman, hain justu, hirugarren gelditu zen 70 kilo baino gehiagoko *kumite* sailean. Karate txapelketan 67 kirolari ibili ziren lehian. Aretxabaletarren artean, Kermanez gain, Ander Hernandezek ere hartu zuen parte. Biendako zapatukoa izan zen lehen txapelketa ofiziala. Odilo Vazquez entrenatzailea pozik azaldu zen taldeko mutilek egin zuten lanarekin. /A.L.

Banatzailak

Egubakoitz arratsaldeetan Goienkaria banatu
eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora
edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

Aretxagazeta

ERRETRATUZHARRA

Neska-mutikoak Herriko Plazan jolasean



Lehengo neska-mutikoek oraingoek baino jolas gehiago egiten zuten zalantzarik ez dago; edo, behintzat, beste era bateko jokoak egiten zituzten. Horixe ageri da, hain zuzen ere, 1972. urte inguruko erretratuan.

Neska-mutikoek dituzten jantziei erreparatuta, udazken partea izan behar zuen, baina hotz egiten zuen arren mutiko gehientsuenak praka motzekin ibiltzen ziren, eta neskek gona motz-motzak zituzten. Galdetutakoak ez dira gogoratzen nork antolatu zien jolasak Herriko Plazan, ezta jairen bat ospatzen zebiltzan edo ez. Hori bai, zerbitzari jokoak egiten hasteko gertu daude: erretilua eskuan eta Coca-cola botila gainean jarrita, ibilbidea nork lehenago egin. Batzuk jolasa hasteko gertu, urduri; eta beste batzuk euren txanda noiz izango zain. Garai hartan beste joko batzuk ere egiten zituztela du gogoan Alberto Beltran de Heredia: bizikletarekin ginkana jokoak, esaterako. Herriko Plaza bete-bete eginda egoten zen,

gainera, eta hainbat adinetako neska-mutikoek jokoetan parte hartzeko txandarik ezin hartu.

Ezkerretik eskumara agertzen diren neska-mutikoak: Jesus Berasaluze (atzean), Diego Romero (atzean), Mikel Antxia, Andoni Lopez de

Armentia, Alfonso Unanue, Myriam Beltran de Heredia, neska ezezaguna, Alberto Beltran de Heredia, eta hurrengo mutiko-neskatilak ez ditu galdetutako inork ezagutu. Eskumaldean betaurrekoekin agertzen den neskatila Mariasun Ezkurra da, eta

atzerago dagoena Lurdes Etxebarria.


Atzean agertzen diren gizonak: Bittor Agirre, Alberto Beltran de Heredia, Felix Armendia eta Javier Cano.

Argazkia: Felis Beltran de Heredia

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Udaletxeko lorategiko zubia

Mende hasieran zubia zegoen Arratabe jauregiko lorategitik-udaletxe osteko lorategitik-Lausitta auzora. Oraintsu arte, gainera, zubi buruaren aztarna zegoen lorategian, baina iazko urtarrilean haizeak lorategian zegoen ezki bat bota egin zuen, eta ingurua apurtu. Ezkia kendu eta errekarren horma berri zutenean desagertu egin zen aztarna.



≈ 1900

Mende hasierako Deba errekarako urak beste kolore bat zeukan, eta mutikoek lasai egiten zuten jolas uretan.



2003

Ez umerik, ez arrainik; ahate gutxi batzuk eta ur oiloak topatuko ditugu orain gure errekan. Beharbada urte batzuk barru... Nork daki!

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

PAGALDAI

Opari denda
Burrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2003ko urriaren 24a / 142. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Ezkurtxok herriko umeak Zarimutz elizateraino trenez eramango ditu bihar

AINTZANE GARDOKI

Elizatez elizate ibili izan da Ezkurtxo azkeneko urteotan. Orain dela zortzi urtetik hona herriko umeak eta haien gurasoak lagun hartuta Eskoriatzako kaleak eta elizateak bisitatu dituzte. Bihar arratsaldean Zarimutzera joango dira, trenez.

Bi talde egingo dituzte umeen artean: txikienek, hau da, 7 urte arteko umeek, 15:00etan hartuko dute Zarimutzera joateko tren eta ordu erdi geroago, berriz, nagusiagoek. "Bisitatzeke falta zaigun elizate bakarra da Zarimutz, eta trenarekin oso lotuta dagoenez, aurten, autobusa beharrean tren aukeratu dugu hara joateko. Txu-txu tren horietako baten joango dira umek", esan digu antolatzaile Inaki Agirianok.

ERAKUSKETA ETA IPUIN KONTAKETA

Aurreko zazpi urteotan egin ohi den moduan, herria eta elizateak ezagutaraztea du helburu Ezkurtxok. "Horretan, behintzat, helburua bete dugu; izan ere, eskoriatzar guraso gazte askok Ezkurtxori esker ezagutu dituzte bertako elizateak".



ARTXIBOA

Aurten, Ezkurtxok herriko ume eta gurasoak trenean eramango ditu Zarimutzera elizatea ezagut dezaten.

Zarimutzen ipuin kontaketa egingo dute lehenengo. Eskulan lantegiak, askaria eta trenaren gaineko erakusketa txiki bat ere egongo dira. Eta zazpi elizateak bisitatu eta

gero, datorren urtean Ezkurtxoren eginbeharra zein izango den erabakitzeko dute arduradunek: "Egia esatearren, ez dugu batere argi; izan ere, hasierako umeak kos-

kortu dira eta berriak ere badatoz. Oraingoz ez dakigu beste era bateko festaren bat egingo dugun edo berriro auzoz auzo hasiko garen. Urtebete dugu hori erabakitzeko".

Aurten, autobusa beharrean tren hartuko dute umeek Zarimutzera joateko

Zarimutzen trenaren gaineko erakusketa txiki bat egongo da ikusgai

Aurrerantzean Ezkurtxoren eginbeharra zein izango den ez dago argi



Oso giro ona eta txirrindulari ugari bizikleta gainean

210 txirrindularik hartu zuten parte XIV. Mendi Bizikleta Ibilaldian. Domeka goizean txirrindulariek eguraldia lagun izan zuten arren, lokatza zela eta ibilaldiko zati bat moztu egin behar izan zuten antolatzaileek. Horren ondorioz, lau bat kilometro gutxiago egin behar izan zituzten kirolariek. Lehenengo txirrindulariak eguerdirako heldu ziren plazara. Urko Munduate lezoarra izan zen lehena. Oso maila ona erakutsi zuten txirrindulariek. Sari ugari banatu zituzten parte-hartzaileen artean. /A.G.

LABUR

'Berriari' laguntzeko ahaleginak emaitza txikia

Euskaldunon Egunkaria itxi zutenean, Euskal Herriko beste herri gehienetan moduan Egunkariaren alde lan egiteko batzordea sortu zen Eskoriatzan ere. Herriar talde batek ahaleginak egin ditu Berria egunkariarendako ahalik eta emaitzarik onenak jasotzeko, baina eskoriatzarrengandik lortutako emaitzak ez dira gura bezain oparoak izan. 50 euroko 13 akzio erosi dituzte eskoriatzarrek eta 300 euroko lau akzio. Oraindik ere lagundu gura duenak jo dezala Axtrokira.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 77 20 25
Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ANTZERKIA

Kont arte antzerki lana eskainiko du gaur Taun-Taun taldeak HUHEZIn, 22:00etan.

PERRETIXIKO ERAKUSKETA

Luis Ezeizako guraso eta ikasleak perretxiko bila irtengo dira bihar, zapatua, 09:30ean elkartuko dira, plazan. Eta domekan erakustaldia egingo dute batutako perretxikoekin.

JOLAS ETA KANTU IKASTAROA

Azaroaren 8an, 15ean eta 22an egingo diren jolas eta kantu saioetan parte hartu gura duenak izena eman beharko du urriaren 31 aurretik kultura etxean.

AXTROKIRENAGENDA

IRUNBERRIKO IKASTOLA

Joan den domekan Nafarroa Oinezen gertatutakoak direla-eta, Axtrokik Irunberriko ikastolari laguntzeko dei egin gura du; horretarako jo banketxe edo aurrezki kutxetara.

AISIALDIA

Fandangoa eta arin-arina dantzatzeko ikasteko saioak antolatu ditu Udalak

AMAGOIA LASAGABASTER

Euskal dantzak ikasteko ikastaroa antolatu du Udaleko Euskara Sailak. Saioak nagusiendako izango dira; hala, hamar euroren truke arin-arina eta fandangoa dantzatzeko aukera izango dute.

Garai baten herrian bazegoen dantza taldetxo bat. Hala ere, hura desagertu zenetik euskal dantzen inguruko herri mugimendua geldirik egon da. Bada, Udalak etenaldi horri amaiera jarri gura zion eta horregatik antolatu du ikastaroa. Gainera, aurtun, herriko Euskal Jai egunean hainbat herritarrek horrelako dantzak ikasteko nahia agertu zuten. Batez ere fandangoa eta arin-arina -biak ere euskal dantzetan oinarritutakoak- ikasteko gogoazaldu zuten. Hala, aurreneko ikastaroan dantza bi horiek irakatsiko ditu irakasleak.

Parte hartu gura duten guztiak Udaleko euskara teknikari Mari Carmen Arrietarengana jo beharko dute. E-postaz edo telefonoz urriaren 31 baino lehenago eman beharko dute izena. Ikastaroa azaroaren 5etik 17ra bitartean emango dute. Eskolak



ARTXIBOA

Fandangoa eta arin-arina ikasteko aukera egongo da Udalak antolatutako ikastaroan.

martitzenetan izango dira, 19:00etatik 20:30era.

UMEENDAKO

Nagusiendako dantza ikastaroa antolatu aurretik, Udalak ume-

endakoa gertatu zuen. Horiek irailean hasi ziren euskal tradiziozko dantzak ikasten, eta martxa ona daramate; izan ere, dagoeneko 35 umez osatutako taldetxoak eratu dute eta pozik dabilta.

TXUTXU-MUTXUA




Naroa Enekotegiren arrakasta

Naroa Enekotegi mezzosoprano eskoriatzarrak arrakasta handia izan du New Yorken antzezutako *Fausto* operan. Joan den hilaren 15ean, New Yorken DaCapo operan, *Fausto* operan Siebel-en papera egin zuen Naroak. Agerraldia bukatu zuenean, hainbat minututako txalo zaparrada eskaini zion publikoak eta opera bukatu eta gero beste txalo emanaldi eder batekin saritu zuten Naroa. New Yorken bizi da orain dela lau urtetik.

Euskararen normalizazioa helburu

Euskara Udal Kudeaketa saioan parte hartu zuten martitzenean, hilak 21, ibarreko alkateek, zinegotziek eta udalako euskara teknikariek. Debagoieneko Mankomunitateko presidente Ignacio Lakunzak eta Gipuzkoako Erakunde Harremanetarako diputatu Fernando Tapiak egin zuten saioan parte hartzeko deialdia. Korporazio berriek datozen lau urteotarako udal kudeaketan euskara ezinbesteko elementu izatearen garrantziaz aritu ziren.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehaztarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA
HORTZ
KLINIKA

Eduardo Gorosarri 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza



DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

Gatzagaren eta gatzagarren gaineko bideoa aurkeztuko dute azaroaren 8an

AINTZANE GARDOKI


Bostehun argazki baino gehiagorekin osatu dute Gatzagaren eta gatzagarren gaineko bideoa. Lana amaitzean dute arduradunek eta datorren azaroaren 8an, estreinatuko dute 16 minutuko bideoa. Frontoian egingo dute aurkezpena, 19:30ean.

Orain dela ia bi urte hasi ziren Txelu Angoitia argazkilaria eta Juan Martin Elexpuru idazlea Gatzagan lanean. Udalak eskatuta herriaren oraina eta etorkizunerako dituen asmoak iruditan jasotzea izan dute helburu. Argazkilaria durangarrak 3.000 argazki baino gehiago egin ditu eta Elexpuru letrak jarri dizkie Angoitiaren irudiei. Paisaia, arkitektura, herriko enpresak, herritarren lanak, museoa, jaiak, herritarrak... izan ditu makinaren ikuspuntuan Angoitiak. "2001eko Gabonetan hasi nintzen argazkiak egiten eta 2002a amaitu arte Gatzagako bazterrak eta gatzagarrek eurak ezagutzeko aukera izan dut", esan digu Angoitiak. 2002ko Gatzaga islatzea izan du helburu Angoitiak. "Gatzaga herri txikia izanik, duen bizitasuna eta indarrak eman dit atentzioa. Kontraste handiko herria da, gainera: 50 metroko tartean satorra akabatzen dabilen baserritarrarekin eta mundu osora konektatuta dauden langileekin egin daiteke topo Gatzagan. Bizitasuna, indarra eta kontrastea islatzea ez da oso erraza, baina nik hori jaso gura izan dut", gaineratu du Angoitiak.

PASABIDE INPORTANTEA ETA 'URRE ZURIA' Elexpuru jarri ditu letrak. Beatriz Artzamendik musika, eta guzti-en lana, berriz, Iharduneko Iñigo Astigarrak koordinatu du. "Gatzagaren historia aberatsa da oso: batetik, pasabide inportantean dagoelako eta bestetik, gatzasoi baten *urre zuria* zelako. Letra egiteko orduan historiari begiratu bat eman diot, baina beti gogoan izanda oraina dela inportantea eta geroa egiten ari garela. Herri bizia dela erakutsi dit Gatzagak", esan digu Elexpuru. Azaroaren 8an egingo dute aurkezpena, 19:30ean.



Herritar gehienak izan ditu argazkilariek bere makinaren ikuspuntuan.



Bostehun argazki baino gehiagorekin osatu dute 16 minutuko bideoa.



Udaberriko, udako, udazkeneko eta neguko Gatzaga ikusi ahal izango da bideoan.



Herritarrek egindako harrera onagatik oso pozik azaldu da Angoitia.

Argazkilariek 3.000 argazkitik gora egin ditu eta Elexpuru letrak jarri dizkie irudiei

"Herriaren bizitasuna, indarra eta kontrastea islatzea ez da erraza izan"

"Letra egiteko orduan, historiari begiratu bat eman diot"

Azaroaren 8an egingo dute lanaren aurkezpena, 19:30ean, frontoian

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



Udazkena
etorria da...



ALBOKA
GAZTE MODA

Durana 36, Aretxabaleta Tel.943 77 16 10

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure etxearen osasun onerako



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:

Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:

Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Tebista, audio
- eta bideo salmenta
- eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

PINTURAS



ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2., 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA


ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Pintura eta dekorazioa



San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Lezama zentru komertziala 16
Tel.: 943 79 17 53
ARETXABALETA

MUSAKOLA
Pinturak

Durana 27, 3. solairua
ARETXABALETA
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187